

Galdegaia testu osoetan (I)

Mitxel Kaltzakorta Mentxaka

Abstract

As in his previous articles, the author intends to prove that one of Altube's laws, i.e., the one related to the galdegaia, is badly formulated (the galdegaia element must be placed in front of the verb, and linked to it). However, as opposed to his previous articles, the author will not discuss certain sentences independently, but he will examine some texts as a whole, all of them orally produced by speakers from the Spanish Basque Country. Thus, the author will show that those speakers mainly use galdegaia after the verb.

Laburpena

Aurreko artikuluetan legez, honetan be artikuluairen egileak frogau gura dau Altuberren legeetariko bat, galdegaiaren ganean emona, oker dagoala formulauta (Galdegaia joan behar da aditz aurrean, berari inkautu). Baina aurreko artikuluetan ez legez, honetan egileak ez ditu jorratuko hasikera perpaus hutsak, ezpabere testu osoak, danak ahozkoak eta hegoaldeko hiztunak ekoiztuak. Erakutsiko dau mintzatzaileok galdegaia erabilten dabela aditz ostean, nagusi-nagusi erabili be.

Keywords: galdegaia, position of galdegaia, information point, information complements.

Gako hitzak: galdegaia, galdegai-lekua, informazio gunea, informazio osagarriak.

0. Sartaurrea

Aldizkari honetan, 10 eta 11 zenbakietan, artikulua bana idatzi genduan non darabilen hiztun batzuk galdegaia ahozko narrazioetan, hasikera perpausetan. Lehenengo artikuluan jorratu genduzan liburu batekoak, *Hamaika abere-ipuin* izenekoak; bigarren artikuluan beste liburu batekoak, *Amattoren uzta*.

Orain, artikulua bitan-edo, aztertu gura gendukez lehenengo perpausak barik testu osoak, idatzizkoak zein ahozkoak. Lehenengo artikulua honetan jorratuko doguz ahozko testu batzuk, hegoaldekoak.

Aurreko artikuluetan legez, honetan be ikertuko doguz galdegaiaren kokalekua ez eze, baita beste kontu batzuk be. Hona hemen zehatzago adierazota zertzuk helburu doguzan:

1. Erakutsi zer kokaleku hartzen dauan galdegaiak perpaus nagusietan zein menpekoetan.
2. Ikusi zer gertetan dan komunikagarritasun aldetik (Errezago edo gaitzago irakurri) lekuz aldatuz gero galdegaia eta aditza batez be.
3. Osterantzeko kontuak

Lehenengo artikulua honetan, esandako moduan, ahozko testuak aztertuko doguz, hegoaldeko hiztun batzuenak, eurok gure Autonomia Erkidego bietakoak. Narraziook han-hemen dagoz sakabanatuta liburu-aldizkarietan, eta hona hemen zeintzuk direan ipuinon batzaileak:

1. Nikolas Alzola Gerediaga
2. Labayru institutua
3. Jose Mari Satrustegi
4. Josemiel Barandiaran
5. Nils Holmer
6. Jose Manuel Etxebarria

Ahozko testu guztiak ipini doguz euskera batuan, edo ahaleginak egin doguz, gauza asko dago-eta erabagiteko, lexiko arloan batez be.

Artikulu honek, sarreraz ganera, apartadu bi ditu: lehenengoan testuak sailkatuko doguz batzaileka eta gorago aitaturiko azterketa egin, eta bigarrenan konklusinoak emongo doguz. Amaituteko, ohi legez, bibliografia parauko dogu.

1. Adibideak aztertuten batzaileka

Hasiko gara Nikolas Alzola Gerediagaz, zeinaren 3 testu emongo doguzan, danak *Irunen Barrena* liburutik jasoak.

Lehenengo adibide honetan (baita beste guztietan be), aditzak kortxete artean sartuko doguz eta galdegaiak baltzitu.

1.1.

1.1.1. Enondoko etxeko semea

Enondoko etxeko semea [joan zen] **Ameriketara**, Mexikora. Han [izan zuen] **suerte**a, dirua egiteko. Urte aunitz pasatuta [etorri zen] Martin Urrutia **bere sorterrira**, Oronozera.

[Erran zion] bere lagunari **nahi zuela rekuerto bat utzi bere sorterriri**, bi kolejio eginda; bat mutikoendako eta bertzea neskatoendako, ikas dezaten eskola, deus ere pagatu gabe. Eta bati paratuko ziotela bere izena deitzeko San Martin kolejioa eta neskatoena “Nuestra Señora del Carmen”, bere emaztearen izenarekin. Hola [gelditu zen] herriko jendea **agitz kontent**. Ala bada herriak [eman zi(zki)on] **lurrak** kolejioak egiteko. Bera **Donostian** [bizi zen]. [Etortzen zen] **maiz** bere sorterrira kolejioak ikustera.

Baina nola bait [zituen] urte aunitz, [hil zen] don Martin **Suitzan** eta bai ere bere emaztea. Eta [ekarri zituzten] **Oronozko kanposantura**. **Han** [daukate] bere panteona.

Eta bere seme bakarra, don Juan, **han** [dago] enterratua. (126 or.) Nafarroa: Oronoz-Mugaire.

Lehenengo paragrafoan, aurrerengo perpausan

- Enondoko etxeko semea [joan zen] Ameriketara, Mexikora

aditz atzean dago galdegaia (Ameriketara). Gaur egun honan idatziko litzateke, aditz aurrean ipinita galdegaia:

- Enondoko etxeko semea Ameriketara [joan zen], Mexikora

Egia esateko, ez dago alde handirik jatorrizkotik perpaus horretara. Baina gaur egun beste jokera bat doa indartuten-indartuten:

- Enondoko etxeko semea Ameriketako Mexikora [joan zen]

Holakoak barra-barra dagoz zabalduta, euskerearen zoritxarrerako, eta emoten dau Mexiko bat baino gehiago dagoala, eta bat Ameriketara. Bigarren perpausan

- Han [izan zuen] suertea, dirua egiteko.

oker ez bagagoz, baltzitua dago galdegaitzat, eta ez han. Honan esango bagendu legez:

- Han suertea [izan zuen] dirua egiteko

Gaur egun hurrengo modu bietan idatziko litzateke, lehenengoan batez be:

- Han dirua egiteko suertea [izan zuen]
- Han [izan zuen] dirua egiteko suertea

Batean zein bestean kargantetxo gertatuten da perpausa, suertea parauta dago-eta dirua egiteko

osagaiaren ostean, baina jokera horixe dabil zabalen gaurko euskeran. Pentsa daigun une baten, osagarria, dirua egiteko barik hiru-lau bider luzeago dala. Holako osagarri luzea, lukainka-lukainkea, parauz gero suertearen ezkerretara, nekagarria jazo leiteke irakurteko.

Hurrengo perpausan dueda daukagu baltzitua (bere sorterrira) ete dan galdegaia, edota Urte aunitz pasatuta. Perpaus hori ondorengo moduetariko baten idatziko litzateke gaur:

- Martin Urrutia urte aunitz pasatuta bere sorterrira [etorri zen], Oronozera
- Martin Urrutia urte aunitz pasatuta Oronoz bere sorterrira [etorri zen],

Azterturiko paragrafoan, testuko lehenengoa, hiru perpaus nagusi aztertu doguz, eta hiruretan aditz aurrean dago galdegaia. Baina badago menpeko bat be (Urte aunitz pasatuta), eta bertan galdegaia aditz aurrean dago (Urte aunitz).

Aztertu daigun bigarren paragrafoa

- [Erran zion] bere lagunari nahi zuela rekuerto bat utzi bere sorterriri, bi kolejio eginda; bat mutikoendako eta bertzea neskatoendako, ikas dezaten eskola, deus ere pagatu gabe. Eta bati paratuko ziotela bere izena deitzeko San Martin kolejioa eta neskatoena “Nuestra Señora del Carmen”, bere emaztearen izenarekin. Hola [gelditu zen] herriko jendea agitz kontent. Ala bada herriak [eman zi(zki)on] lurrak kolejioak egiteko. Bera Donostian [bizi zen]. [Etortzen zen] maiz bere sorterrira kolejioak ikustera.

Lehenengo perpausa aditzez hasten da, eta bertan galdegaia, perpaus konpletiboa, aditzaren ostean dago. Aditza eroan leiteke bigarren lekura, eta ez da (ia) ezer jazoten:

- Bere lagunari [erran zion] nahi zuela rekuerto bat utzi bere sorterriri, bi kolejio eginda; bat mutikoendako eta bertzea neskatoendako, ikas dezaten eskola, deus ere pagatu gabe.

Okerra egingo litzateke aditz aurrera igaroz gero galdegaia, perpaus konpletiboa:

- Bere sorterriri rekuerto bat utzi nahi zuela [erran zion] bere lagunari, bi kolejio eginda; bat mutikoendako eta bertzea neskatoendako, ikas dezaten eskola, deus ere pagatu gabe.

Perpaus konpletiboaren ondoren ZERTARAKO osagarria dator, menpeko perpausa (bi kolejio eginda; bat mutikoendako eta bertzea neskatoendako, ikas dezaten eskola,), eta hor aditz atzean dago galdegaia (eskola).

Jo daigun bigarren perpausera:

- Eta bati paratuko ziotela bere izena deitzeko San Martin kolejioa eta neskatoena “Nuestra

Señora del Carmen”, bere emaztearen izenarekin.

Ez dot ondo ulertuten, baina paratu ziotela aditz konpletiboak ostean dauka galdegai; baita deitzeko menpeko aditzak be. Jorratu daigun hurrengo perpausa:

- Hola [gelditu zen] herriko jendea agitz kontent

Oker ez bagagoz, baltzitua da galdegai, eta ez hola. Izan be, ez ete perpaus hori honakoaren parekoa?

- Hola agitz kontent [gelditu zen] herriko jendea

Aditz osteko osagaia aurrera pasako bagendu, gaur egunean egiten dan legez askotan, oraindino penatxoago irakurriko genduke:

- Hola herriko jendea agitz kontent [gelditu zen]

Bigarren paragrafoko ondorengo perpausuan be aditz atzean dago galdegai, eta hori dala-eta, hankaz gora ipinten dau galdegaiaren legea (aditz aurrean erabili behar dala). Ikusi daigun hurrengo perpausa:

- Ala bada herriak [eman zi(zki)on] lurak kolejioak egiteko

Hor be ez da beteten galdegaiaren legea. Aztertu daiguzan batera azkenengo perpaus biak:

- Bera Donostian [bizi zen]. [Etortzen zen] maiz bere sorterrira kolejioak ikustera

Lehenengo perpausuan errespetetan da galdegaiaren legea; bigarrenan, oster, hautsi egiten da, aditz atzean dago-eta kokatua galdegai.

Pasa gaitezaz azkenurreko paragrafoa:

- Baina nola bait [zituen] urte aunitz, [hil zen] don Martin Suitzan eta bai ere bere emaztea. Eta [ekarri zituzten] Oronozko kanposantura. Han [daukate] bere panteona.

Hor, perpaus bitan aditz atzean dago galdegai, eta hirugarrenean, oster, aditz aurrean. Paragrafoaren hasieran menpeko perpaus bat dago, eta bertan aditz ostean galdegai (urte anitz). Paragrafo osoa honan idatziko litzateke gaur egun:

- Baina nola urte aunitz bait [zituen], don Martin Suitzan [hil zen] eta bai ere bere emaztea. Eta Oronozko kanposantura [ekarri zituzten]. Han [daukate] bere panteona.

Amaituteko, azken paragrafoan, aditz aurrean dago galdegai:

- Eta bere seme bakarra, don Juan, han [dago] enterratua.

1.1.2. Poteoa urrezkoa

Egun batean [joan zen] Alfonso Anizkua **Iruñera** bere negoziotara.

Ondoko egunean etxera heldu zelarik, [harrapatu

zuen] **pareja bat** autobusetan.

[Erran zioten] **ea nahi zuen pote bat urrezkoa**. Zazpi mila pezeta haren alde.

Alfonsok [erran zion] **ez zuela dirurik aski**, baina nahi bazuten esperatu bederatzit t'erdita(ra)ko etorriko zela diruarekin.

Alfonsok [hartu zuen] automobila **bost'erditan**

[Etorri zen] **bere etxera**

[Erran zion] andreari **suerte gogorra bazuela Iruñen**: zazpi mila pezetaren alde pote bat urrezkoa eman nahi ziotela

Andreak [erran zion] **ez sinesteko**, gezurra izan zela.

[Etorri zen] **lasterka** karreterara zortzietako automobila hartzera, Iruñera joateko.

Han, ailegatu zelarik, han [zegoen] **pareja esperoan**. **Han** [egin zuten] beren kanbioa.

Alfonso bere pote urrezkoarekin Iruñeko kaleetan, ez ziren harek nahi orduko ailegatu atsaldeko laurak.

Automobila [hartu] eta [etorri zen] **etxera**.

Alfonsoren disgustoa! [Joan zen] **Elizondoko Ayuntamientora** eta han [erran zuen] **zer pasatu zitzaion**.

Ayuntamentuak [eman zuen] **parte**, baina **orduko** Iruñetik [joan ziren] hura engainatu zutenak.

[Gelditu zen] **zazpi mila pezeta gabe** eta harri kozkorrekin. (114-115or.) Nafarroa: Oronoz-Mugaire

Lehenengo perpausuan, aditz ostean dago galdegai, baina ez lehenengo kokalekuan, ezpabere bigarrenan. Ipini daigun aditz aurrean, gaurko ortodoxiaren legean:

- Egun batean Alfonso Anizkua **Iruñera** [joan zen] bere negoziotara.

Eta ez, ez da jatorrizkoan besteko errez irakurten.

Bigarren perpausuan be aditz atzean dago galdegai. Hona hemen zelan geratuko litzateken parauz gero aditz aurrean:

- Ondoko egunean etxera heldu zelarik, **pareja bat** [harrapatu zuen] autobusetan.

Hor, ikusten dogunez, menpeko perpausuan errespetetan da galdegaiaren legea, *etxera*, galdegai, aditz aurrean dago-eta.

Goazen hurrengo paragrafoa, hirugarrenean:

- [Erran zioten] **ea nahi zuen pote bat urrezkoa**. Zazpi mila pezeta haren alde.

Agerian dagoenez, aditz atzean dago galdegai, perpaus konpletiboa. Paragrafo horretan, perpaus

konpletiboaren barruan, badago kontu bat interesgarria be interesgarria. Hor daukagu **pote bat urrezkoa**, eta dagoanean ezin hobeto dago, ez da-eta eskatuten

ZELAKO pote bat

Izan be, galdera horrek erantzuntzat eskatuten dau:

Urrezko pote bat

Eta narrazioaren testuinguruan eskatuten da:

ZER nahi?

Egin daigun salto laugarren paragrafoa:

- Alfonsok [erran zion] **ez zuela dirurik aski**, baina nahi bazuten esperatu bederatzit'erdita(ra)ko etorriko zela diruarekin.

Hor be ez da beteten galdegaiaren legea, aditz ostean dago-eta galdegai, berau perpaus konpletiboa. Juntagailuaren ostean, hau da, *bainaren* atzean, zabaldua dago eretxia, gaur egun, idatzi behar dala *esperatu* aditza aurreratuta:

- baina *esperatu* nahi bazuten bederatzit'erdita(ra)ko etorriko zela diruarekin.

Horko perpaus konpletiboa ez da amaituten menderagailu bidez (-*ela*), nahiz eta halan agindu Altuberen beste lege batek (galdegaiarenaz ganera), baina gaur egun jokera horixe dabil nagusi.

Erreparau deiegun hurrengo paragrafo biei, bosgarrenari eta seigarrenari:

- Alfonsok [hartu zuen] automobila **bost'erditan**
- [Etorri zen] **bere etxera**

Kargutu gaitzan galdegai biak aditz ostean doazela.

Jo daigun hurrengo paragrafo bietara, zazpira eta zortzira:

- [Erran zion] andreari **suerte gogorra bazuela Iruñen**: zazpi mila pezetaren alde pote bat urrezkoa eman nahi ziotela
- Andreak [erran zion] **ez sinesteko**, gezurra izan zela.

Bietan menpeko perpaustzat ageri dira perpaus konpletibo bi, eta biak, aditzaren ondoren.

Ikusi daigun bederatzigarren paragrafoa:

- [Etorri zen] **lasterka** karreterara zortziretako automobila hartzera, Iruñera joateko.

Hor be aditz atzean dago galdegai.

Jorratu daiguzan hamar eta hamaikagarren paragrafoak:

- Han, ailegatu zelarik, han [zegoen] pareja **esperoan**. **Han** [egin zuten] beren kanbioa.

- Alfonso bere pote urrezkoarekin Iruñeko kaleetan, ez ziren harek nahi orduko ailegatu atsaldeko laurak.

Bigarren paragrafoa alde batera utziko dogu, ez da-eta ageri aditz nagusirik lehenengo partean, eta bigarren partean aditza ezezka dago-eta. Lehenengo paragrafoan perpaus nagusi bi dagoz, eta horietariko baten aditz atzean dago galdegai, eta bestean, aditz aurrean. Bada menpeko perpaus bat be, baina galdegai bakoa.

Oratu deiegun hamabi eta hamairugarren paragrafoei:

- **Automobila** [hartu] eta [etorri zen] **etxera**.
- Alfonsoren disgustoa! [Joan zen] **Elizondoko Ayuntamentora** eta han [erran zuen] **zer pasatu zitzaion**.

Lehenengo paragrafoan jokaera bi dagoz alkarren kontrakoak: lehenengo perpaus beteten da galdegaiaren legea; bigarrenean, ostera, ez. Baina Oronozko hiztunak esan eikean trankil-trankil:

- [Hartu] **automobila** eta **etxera** [etorri zen].

Hau da, galdegai biak aldatu doguz lekuz: aditz aurrean egoana parau dogu atzean; aditz atzean egoana, aurrean. Baina erabilera biak, jatorrizkoa zein aldaerakoa, biak begitanduten jakuz zuzenak eta egokiak, normal-normalak gure belarrientzat; hiztun batzuk esango dabe modu batera, eta beste batzuk bestera. Baina beti be galdegai txikia bada.

Bigarren paragrafoan, ikusten danez, galdegai biak aditz ostean dagoz.

Heldu deiegun azkenengo paragrafo biei, hamalauari eta hamabostari:

- Ayuntamentuak [eman zuen] **parte**, baina orduko **Iruñetik** [joan ziren] hura engainatu zutenak.
- [Gelditu zen] **zazpi mila pezeta gabe** eta harri kozkorrekin.

Amaituteko, ez dakigu asmatu ete dogun zeintzuk direan galdegaia.

1.1.3. Serrakuran sorginak saltoka eta saltoka

Gizon bat [heldu zen] **etxerat** eta [atera zitzaizkion] bidean **sorginak**, eta [sartu zuten] **alanbrez serratu zen batera**.

Eta **hantxe** [lotu zitzaizkion] zazpi sorgin dantzan.

Eta hantxe berak **nahi zuen bezainbat denbora** [eduki zuten] gizon hura.

Gero, serrakura hartatik [atera ziren] sorgin haiek, **saltoka eta saltoka**.

[Joan ziren] saltoka eta saltoka **uraren ezkinara**, eta **hantxe** [hasi ziren] denak bokata jotzen.

Gizon gixajoak sorginen eskutik eskapatu zenean **atsegina** [hartu zuten]. (108or.)Bera

Emon daigun testua zutabe bitan: ezkerrekoan, jatorrizkoa; eskumakoan, gaur egun erabiltzen dan moduan (aditzak galdegaia dauala ezkerretara, berari inkauta). Alderatu egizu, irakurlea, zelako aldea dagoan batetik bestera.

Serrakuran sorginak saltoka eta saltoka	Serrakuran sorginak saltoka eta saltoka
Gizon bat [heldu zen] etxerat eta [atera zitzaizkion] bidean sorginak , eta [sartu zuten] alanbrez serratu zen batera .	Gizon bat etxerat [heldu zen] eta bidean sorginak [atera zitzaizkion], eta alanbrez serratu zen batera [sartu zuten].
Eta hantxe [lotu zitzaizkion] zazpi sorgin dantzan.	Eta hantxe [lotu zitzaizkion] zazpi sorgin dantzan.
Eta hantxe berak nahi zuen bezainbat denbora [eduki zuten] gizon hura.	Eta hantxe berak nahi zuen bezainbat denbora [eduki zuten] gizon hura.
Gero, serrakura hartatik [atera ziren] sorgin haiek, saltoka eta saltoka .	Gero, sorgin haiek serrakura hartatik saltoka eta saltoka [atera ziren].
[Joan ziren] saltoka eta saltoka uraren ezkinara , eta hantxe [hasi ziren] denak bokata jotzen.	Uraren ezkinara [joan ziren] saltoka eta saltoka, eta hantxe [hasi ziren] denak bokata jotzen.
Gizon gixajoak sorginen eskutik eskapatu zenean atsegina [hartu zuten]. (108or.)	Gizon gixajoak sorginen eskutik eskapatu zenean atsegina [hartu zuten]. (108or.)

1.2.

Bigarren narrazioaren batzailea ez da pertsona jakina, ezpabere institutu bat, Labayru izenekoa, eta beronen testuak jaso doguz: batetik, *Euskal Dialektologiarako testu eta ariketak* liburutik eta, bestetik, *Esaldi bakuna* izenekotik.

1.2.1. Peru eta Marija

Behin [bizi ziren] **Peru eta Marija**. Peruk [ei zeukan] **gatzeko etxea** eta Marijak [ei zeukan] **karamelozkoa**.

Behin batean [joan ei zen] Marija gatz pixka baten bila **Perugana**, jatekoa gozatzeko-edo; baina honek ez zion eman. Orduan Marijak esan zuen: <<[Ekarriko ahal dizu] **euri zaparrada handi bat!**>>. Euri zaparrada hori [etorri zan] eta Peruren etxea [**urtu** egin zen].

Gero Peru [joan zen] Marijagana **aterpe bila**. Baina honek esan zion: <<Zeuk ez nauzu (didazu) neuri gatzik eman eta orain [joan] **zeure bidetik**>>. Peruk ere **beste maldizio bat** [bota] eta Marijaren etxea [**urtu** egin zen].

Biak [joan ziren] **arbola gain batera**, Peruk ate handi bat daroala. Arbola azpira [joan ziren] **lapur batzuk** partilla egiten.

Marijari **txizasia (txiza larria)** [ailegatu zitzaion]; Marijak ezin zuen agoantatu eta egin ei zuen. Lapurrek esan ei zuten: <<Zeruko ur bedeinkatua!>>.

Gero Peru **kakasi (kaka larri)** [zen] eta egin ei zuen. Honek esan zuen: <<Zeruko ezti bedeinkatua!>>.

Peruk bere etxeko atea eroan zuen legez (zuenez) arbolara, hau (atea) [bota zuen] **honen** (arbolaren)gaintetik. Bati **mihina** [erdibitu zion]. Hau [joan zen] herrira, <<**mirmela, mirmela...**>> **esaten (esanez)**; jendeak goardazibilak pentsatzen datozela, erretiratu ziren.

Peruk eta Marijak orduan [hartu ei zuten] **dirua**, eta haiek ondo izan baziren, gu hobeto izan gaitzela. (145 or.) Bizkaia: Lekeitio

Ez doguz ez paragrafoak ez perpausak banan-banan aztertuko. Testu osoan, perpaus nagusiei jagokenez, hamasei adibide dagoz aztergai, eta eurotatik 12tan aditz ostean doa galdegaia, eta Setan aurrean. Pare bat ohar: bigarren paragrafoan, perpaus baten

- Euri zaparrada hori [etorri zan] eta Peruren etxea [**urtu** egin zen].

lehenengo perpaus juntatuan markau dogu aditza, baina ez galdegaia. Izan be, gure ustez, galdegaia ez da aurreko osagaia (*Euri zaparrada hori*), ezpabere aditzaren baiezkotasuna. Bigarren perpaus juntatuan,

aditza bera da galdegaia (eta horrexegaitik adierazo dogu baltzez).

Menpeko perpausetan zein kokalekutan erabilten dan galdegaia, horri jagokonez, hona hemen zerrenda osoa zeintzuk menpeko perpaus dagozan testuan (bakotxean kursiban ipini dodaz galdegaia):

- *jatekoa* gozatzeko-edo
- Peruk ate *handi bat* daroala
- <<*mirmela, mirmela...*>> **esaten (esanez)**
- jendeak *guarda zibilak* pentsatzen *datozela*, erretiratu ziren.
- eta haiek ondo izan baziren, gu *hobeto* izan gaitzela

Azkenurrekoa modu berezian-edo dago eratuta, nominalizazioa (*pentsatzen*) dagoala perpaus kompletiboan -galdegaia- txertautu, tartekatuta. Horren ordaina litzateke, guk uste:

- jendeak pentsatzen (=pentsatuz) *guarda zibilak datoze*, erretiratu ziren.
- jendeak *guarda zibilak datoze* pentsatzen (=pentsatuz), erretiratu ziren.

Kompletiboa geratuten da aditz nagusiaren ostean.

Amaituteko, bada menderagailu bat (*-en lege*), zeinaren bidez ez dan ixten menpeko perpausa (azken lekuan *arbolara* dago):

- Peruk bere etxeko atea eroan zueN LEGEZ (zueNEZ) arbolara, (...)

1.2.2. Astoa, txakurra, katua eta oilarra

(1) <<[Egon zen] etxe batean **asto bat**, asto zaharra, ezertarako ere balio ez duen astoa. Eta esan zuten: -Asto zaharra, ez du ezertarako ere balio-eta, hil egin beharko dugu, ea laster negua ere badator-eta, hil eta kito, [kendu] **enbarazutik**.. Jan (e)ze(n) besterik ez du egiten-eta.

(2) Astoak [entzun zuten] **hori**. Eta esan zuten: <<Neu hil zeuek? Ez ba, eskapatu egingo dut ba!>>. Eta [eskapatu zuten] **handik**. Joan zen, joan eta joan, eta [topatu zuten] **txakurra**. Txakurrak esan zion:<<Nora zoaz?>> Eta besteak: <<Ba, ez dudala balio eta, etxean **laster hiltzeko kontua** [esan dute] eta [eskapatu egin dut] etxetik>>.

(3) <<Neu ere **horrelaxe** [noa]>> -esan zion txakurrak-. <<Bueno, ba aitxik (haatik?) [goaz] biok **elkarregaz**. Neu ere zaharra naizela eta, ez dudala zaunkarik ere egiten eta... banoa>>.

(4) [Badoaz] biak elkarregaz. Joan eta joan, [topatu dute] **katua**. Eta esan zion katuari:<<Zer ba? Zuri ere zer pasetan (pasatzen) zaizu ba?>>.

(5) <<Ba, ni ere ia orain sagurik ere ez dudala harrapatetan (harrapatzen) etxean, eta [esan didate] ba, **zaharra naizela**, eta beti **aurrean** [narabilte] eskobagaz jotzen, eta eskapatu dut!>>. <<Bueno, ba geu ere **horrelaxe** [goaz], [etorri] **geugaz**>>. [Juntatu ziren] **hiru**. [Joan ziren] **aurrerago** eta [topatu zuten] **oilarrak**, oilarra kukurrukuka, eta esan zuten: <<Laster Gabonak ere badirela-eta, ia ez duela zerik, eta hil egin behar nautela neu [esan didate] eta...>>. Ba, [plantatu ziren], **astoa azpian**, **astoaren gainean txakurra**, **txakurraren gainean katua**, eta **katuaren gainean oilarra**. [Joan ziren] eta gero **gaua** [ailegatu zen], eta ilundu zen eta, nora joan ere ez.

(6) Eta [ikusi zuten] urrunean hantxe **argitxo bat dagoela**. Eta esan zuten <<**Haraxe** [joan behar dugu] gaua pasetako (pasatzeko), etxe hartaraxe; etxea edo ea zer dagoen ikusi behar dugu hantxe-eta>>. Joan ziren, [jo zuten] **atea**, eta **argi horregaz** [egon ziren] lapurrak, lapurretan eginda, euren diruak kontetan(kontatzen). Eta atea jo zutenean [pentsatu zuten] **badoazela goardazibilak-edo eurek topetan**, eta **eskapatzeari** [eman zioten]; eta besteak, astoa-eta, [sartu ziren] **barrura**, eta [plantatu ziren] **astoa kortan**, **txakurra ate ondoan**, **katua suaren ondotoxan**, eta **oilarra ere kortan**. [Plantatu ziren] **lo egiten**, epeletan daudela-eta, pozik! Eta lapurrak [joan ziren] **atzer**a, ikusten ea zer izan zen haiek ikaratu zituena. Eta bat [sartu zen] **barrura** ilunean, argirik ixotu barik, eta [joan zen] **su ondora**, eta suari eragin zionean [pentsatu zuten] **txingerra dela**, eta [izan zen] **katuaren begia**. Eta katuak **erpeka** [ekin zion], **purrustada batzuk** [egin zizkion]; [hasi zen] lapurra **eskapan**, atera joaten, eta atean [hasi zitzaion] txakurra **zaunkaka**; [hasi zen] kortatik eskapatutakoan, eta kortan [hasien zaio] astoa **ostikoka**, eta gero irten zutenean kanpora haren poza. Eta gero oraindino [kukurruku egiten zion] oilarrak. [Joan zen] **besteengana** eta esan zion: <<Zer ikusi dut ba! Nik ez zekiat zer izan den hura! Batak haginkaka, besteak makilaka, besteak ostikoka, nik ezer ere ez diat ikusi baina txarto ibili nauk, txarto ere txarto. Hara ezin litekek joan>>

(7) Eta gero **huraxe** [izan zen] eurentzako etxea, eta **eurek** [manejeten (manejatzen) ziren] hantxe. Idazketa ariketak, Labayru (121-122or.) Bizkaia: Nabarniz

Paragraforik paragrafo jorratuko dogu testua. Lehenengoan (1) ez dago gauza berezirik orain arte esan ez dogunik (bitatik bitan daroa galdegaia aditz ostean).

Goazen bigarren paragrafora (2). Behin baino besterik ez doa galdegaia aditz aurrean:

- <<Ba, ez dudala balio eta, etxean **laster hiltzeko kontua** [esan dute]

Estruktura hori ez da lar erabilten gaur egun euskeraz. Adierazten dau gitxi gora behera: gaztelaniazko "... como que...". Igaro gaitzean hirugarren paragrafora (3): bitatik behin, lehenengoan

bakarrik dago galdegaia aditz aurrean. Hurrengo paragrafoan (4) aditz ostean dago galdegai bakarra. Egin daigun salto bosgarren paragrafoa (5). Berton be gehiagotan erabilten dau hiztunak galdegaia aditz atzean aurrean baino. Bada paragrafoan puntu bat jakingarria, non perpaus konpletiboetan jokabide bi ageri direan alkarren kontrakoak:

- Ba, ni ere ia orain sagurik ere ez dudala harrapetan (harrapatzen) etxean, eta [esan didate] ba, **zaharra naizela**,
- <<Laster Gabonak ere badirela-eta, ia ez duela zerik, eta hil egin behar nautela neu [esaten didate] eta...>>.

Lehenengoan, aditz konpletiboa aditzaren nagusiaren atzean doa (**zaharra naizela**); bigarrenean, ostera, aurrean (*hil egin behar nautela*). Ahozko euskeran (gaurko idatzizkoan ez legez) aditzaren atzean parau ohi da perpaus konpletiboa gehienbatean. Goiko adibideetara itzulita, zergaitik darabil perpaus konpletiboa bigarren perpausuan, aditz aurrean? Nire ustez, aurreko informazioagaz egiten daualako lotura; osterantzean esateko, aditz nagusia kengarria be badalako: kendu leiteke eta ez da ezer gertatetan.

Oratuta azkenaurreko paragrafoari (6), beti legez, gehiagotan dago galdegaia aditz atzean, aurrean baino. Horretaz aparte, ikusi daigun zelan erabilten dabezan hiztunak perpaus konpletiboak:

- Eta [ikusi zuten] urrunean hantxe **argitxo bat dagoela**
- [pentsatu zuten] **badoazela goardazibilak-edo eurek topetan**,
- [pentsatu zuen] **txingerra dela**

Hiru perpausotan aditz atzean doa perpaus konpletiboa, eta ez aurrean:

- Eta urrunean hantxe **argitxo bat dagoela** [ikusi zuten]
- **goardazibilak-edo eurek topetan (ba)doazela** [pentsatu zuten],
- **txingerra dela** [pentsatu zuen]

Baina beti (salbuespenak kenduta) irakurten dira errezago hor jatorrizko perpausak (azkenaurreko multzokoak) aldaerak baino (azkenengoak). Bada paragrafoan puntu bat interesgarria galdegai moeta bati buruz:

- [Plantatu ziren] **lo egiten**
- [hasi zen] lapurra **eskapan**
- eta atean [hasi zitzaion] txakurra **zaunkaka**
- [hasi zen] kortatik eskapatutakoa
- eta kortan [hasten zaio] astoa **ostikoka**

Lehenengo perpausuan menpeko aditza da galdegaia; besteetan, izenak, izen bereziak (gaztelaniaz aditz bidez emoten dira ordainetan). Testuaren atzen paragrafoan (7), bitatik bitan darabil hiztunak galdegaia aditz atzean. Badira menderagailu bi, kokauta ez dagozanak azken lekuan mendeko perpausetan. Bata zehar-galdera da (lehen perpausa); bestea denporazko perpausa (bigarrena):

- Eta lapurrak [joan ziren] atzera, ikusten ea zer izan zeN haiek ikaratu zituen.
- eta kortan [hasten zaio] astoa ostikoka, eta gero irten zueNEAN kanpora haren poza.

1.2.3. Amerikara diruak irabazten

Gizon bat [joan zen] **Amerikara** diruak irabazten. Eta [topatu zuen] **lagun bat** berarena. Eta [egon ziren] **despeditu ezinik**. Eta lagunak [esan zion] **ematen zi(zki)ola hiru kontseju**. Lehenengo [esan zion] ba: **inoren gauzetan ez sartzeko**; bigarrena: atajutik ez joateko; hirugarrena: jakin barik gauza ez berotzeko. Despeditu ziren eta [joan zen] **etxe batera** eskatzen ostatua.

[Topatu zuen] **gizon argal bat** eta [ikaratu egin zen] eta irten zuenean etxe hartatik segitu egin zion eta [preguntatu egin zion] zer deritzon beraren bizimoduari. Eta lehenengoz [akordatu zen] **Amerikako lagunagaz**, eman zion kontsejoagaz, eta erantzun zion: -Ez naiz inoren gauzetan ni sartzan. Orduan gizon argalak kontestatu zion: -Eskerrik asko. Gero [joan zen] **aurrera** beraren etxerantz eta [topatu zuen] **atajoea** eta [pentsatu zuen] **handik joatea**. Ikusi zuelako gizon bat joaten astoaren gainean. Baina **gehiago** [pentsatu] eta [joan zen] **beraren bidean**. Ailegatu zenean atajora [topatu zuen] **medikoa eta abadea**. Egin zion segitu eta topatu zuenean ia ilean, **astoaren gainean** [joan zen] gizona. Han [akordatu zen] **beraren lagunaren bigarren kontsejoagaz**. Joskera: Esaldi bakuna. Ikasgaiak eta Ariketak (203or.) Bizkaia: Abadiño

Paragrafoka aztertuko dogu testua, eta bi dagoz. Lehenengoan seitatik seitan darabil hiztunak aditz atzean galdegaia. Badira perpaus horretan kontu jakingarri batzuk. Lehenengo, erreparau hurrengo perpausari:

- Eta [topatu zuen] **lagun bat** berarena.
Ez darabil honan:
- Eta [topatu zuen] **beraren lagun bat**.

Testuinguru horretan ez dago zertan erabilirik *beraren* aurretik. Holan, aurretik dagoala, gaiztxoago prozesetan da informazioa. Baina beste osagarri bat generatuz gero, esaterako, NONGO bat (*Arranondoko*), orduan kargantetxoa bihurtuten da perpausa:

- Eta [topatu zuen] *Arranondoko* beraren **lagun bat**.

Aztertuten gabiltzan lehenengo paragrafo honetan bada beste puntu interesgarri bat:

- Eta lagunak [esan zion] ematen zi(zki)ola hiru kontseju.

Galdegaia, perpaus konpletiboa, aditz atzean doa, eta menpeko perpaus aditza eta menderagailua ez doaz azken lekuan. Gaur honan dabil perpaus hori:

- Eta lagunak hiru kontseju ematen zi(zki)ola [esan zion].

Hirugarren puntu jakingarritzat dago azkenengo perpausa:

- Despeditu ziren eta [joan zen] **etxe batera** eskatzen ostatua.

Hor be menpeko perpausa aditz atzean doa (*ostatua*), eta bertan galdegaia aditz ostean (*ostatua*). Hori dala-eta, menderagailua (*-tzen*) ez dago kokautaz azkenengo lekuan.

Pasa gaitezaz bigarren paragrafoa. Perpaus nagusietan zortzi bider dago galdegaia aditz atzean, eta birritan, aurrean (azkenengo galdegaian dueda daukat ondo egin ete dogun aukerea). Galdegaietariko bata, aditz ostean doana, nominalizazioa da (*[pentsatu zuen] handik joatea*). Menpeko perpaus jagoenez, hona hemen zerrenda zeintzuk dagozan, eta eurok emonak paragrafoan dagozan ordenan:

- eta irten zuenean *etxe hartatik*
- **handik joatea**
- Ikusi zuelako gizon bat *joaten astoaren gainean*
- Ailegatu zenean *atajora*
- eta topatu zuenean *ia ilean*

Hor (galdegaiak kursiban dagoz) adibide baten ez beste guztietan galdegaia dago aditz atzean. Hirugarren adibidean beste menpeko bat be ageri da (*joaten astoaren gainean*), zeina gaur egun honan emongo litzateken (galdegaia dauala aditz aurrean):

- *astoaren gainean joaten*

Bost menpeko perpausetatik lau ez dira amaituten menderagailu bidez (*-enean, -elako*). Bada paragrafoan beste menpeko perpaus bat be (zehir-galdera), interesgarria komentetako:

- eta [preguntatu egin zion] zer deritzon beraren bizimoduari

Hor (menpeko perpausa ez da amaituten menderagailu bitartez) aditza bera izan arren galdegaia, gaur eguneko euskeran, aditz aurrean erabiliko litzateke zehir-galdera:

- eta beraren bizimoduari zer deritzon [preguntatu egin zion]

Amaituteko, bada erabilera bat ezin politagoa eta funtzionalagoa:

- Eta lehenengoz [akordatu zan] **Amerikako lagunagaz**, emon eutsan kontsejoagaz,

Ez dakit, irakurlea, kargutetan zarean, baina euskerazko perpaus hori gaztelaniaz beste honen ordainetan dago emonda:

- Y se acordó por primera vez del consejo que le dió el amigo de América

Hau da, gaztelaniaz erlatibo bidez emoten da, eta hitzunik aposizinoz emon dau euskeraz. Gaur honan emongo litzateke (gaztelaniaren imitazioan):

- Eta lehenengoz Amerikako lagunak eman zion kontsejoagaz [akordatu zen]

Holan, itogarritxo gertatetan da perpausa. Bada erdiko bide bat horren eta jatorrizkoaren artean:

- Eta lehenengoz Amerikako lagunagaz [akordatu zen], eman zion kontsejoagaz

1.3.

Hirugarren batzailea hartu dogu Jose Mari Satrustegi, zeinaren testu aztergai bakarra hartu dogun *Euskal Dialektologiarako testu eta ariketak* liburutik.

1.3.1.

Etxe batean [bizi ziren] **abuela bat, gizon bat, mutiki bat eta nesaki bat**. Egun batean gizona [joan zen] **sorora** eta abuela **labeko egiten** [hasi zen]. Eta [bialdu zuen] nesakia eta mutikia **basora** abarrak eske, esanaz: <<Lehenbiziko etortzen denari [emango diot] **opil puska handiena**>>. [Etorri zen] lehenbiziko **mutikia** eta etxera ailegatu zenean esan omen zion: <<Abuela, [zabal] **atea!**>>. Abuelak erantzun zion: <<[Pasa ezak], ba, **eskubiko eskua!**>>, eta [moztu zion] aizkorarekin **eskumuturra**. Eta berriz esan zion mutikiak: <<Abuela [zabal] **atea!**>>. Berriz esan zion abuelak: <<[Pasa ezak], ba, **ezkerreko eskua**>>, eta atzera [moztu zion] **beste eskua**. Gero, baita hankak ere; eta azkenean, **mutikiaren gorputza** [puskatu zuen] eta **pertz batean** [paratu zuen] egosten. [Etorri zen] nesakia **abarrarekin** eta galdetu zion abuelari: <<Non da nire anaia?>>. Abuelak esan zion: <<**Sorora** [joan da] bazkariarekin>>. Baina nesakiak [ikusi zuen] pertzean **zerbait bazegoela**, eta [esan zion] abuelari **hark hil duela bere anaia** eta pertzean daukala egosten. Eta abuelak esan zion orduan: <<Bai, **pertzean** [dago]. Baina esaten badiozu zuen aitari, **zeu** [egosi behar dizut (zaitut)] pertzean. **Eguerdi aldean** [etorri zen] gizona sorotik bazkaritara eta [galdetu zion] abuelari **ea non ze(g)en bere semea**. Abuelak esan zion: <<**Basora** [joan da] abarretara>>, eta nesakiak, bildurrak, ez zuen hitzik atera. Bazkaltzean

abuelak [atera zion] gizonari **bere semearen haragi egosia**, jateko; eta jaten zegoen bitartean, berak botatzen zituen hezurak **nesakiak** [bildu] eta **teilatura** [igo zituen] eta [paratu zituen] **mutikiaren forman**. Eta azkenekoa paratu zuenean, mutikia [hasi zen] **kantatzen**: <<Amonak [hil nau], **aitak** [jan nau], neure arrebak **hezur hutsetan** [piztu nau]!>>. Gizonak aditu zituenean kantaitak [galdegin zion] abuelari **ea zer pasatzen den teilatuan**. Eta harek erantzun zion: zer pasatu behar du! Txoriak **kantatzen** [daudela]! Baina gizona ez zen konforme eta [igo zen] **teilatura** eta **han** [ikusitu zuen] bere semea, **berarekin** [hartu] eta [eraman zuen] **sukaldera**. Eta gero mutikiak bere arreba **urrez** [jantzi zuen] berari bizia salbatzeagatik. Eta egun batean ere abuela gaizto hura [hil zen] eta aita bi umekin **ondo** [bizi izan zen]. (Euskal dialektologoarako testu eta ariketak, 188or.) Nafarroa: Urdian

Lehenengo perpausean enumerazio bat dago galdegai, aditzaren atzean egon be:

- zexe batean [bizi ziren] abuela bat, gizon bat, mutiki bat eta nesaki bat.

Baina ipiniz gero aditz aurrean, galdegaiaren legea beteten dauala, nekagarria egiten da perpausaren irakurketea:

- Etxe batean abuela bat, gizon bat, mutiki bat eta nesaki bat [bizi ziren].

Bigarren perpausa perpaus juntau biz dago osatuta, eta baten beteten da galdegaiaren legea; bestean, ez:

- Egun batean gizona [joan zen] **sorora** eta abuela **labeko egiten** [hasi zen].

Hurrengo hiru perpausetan aditzaren ondoren dago galdegaia:

- Eta [bialdu zuen] nesakia eta mutikia **basora** abarrak eske, esanaz: <<Lehenbiziko etortzen denari [emango diot] **opil puska handiena**>>. [Etorri zen] lehenbiziko **mutikia** eta etxera ailegatu zenean esan omen zion:

Kokauz gero galdegaia aditzaren aurretikoan, hona hemen emoitza:

- Eta nesakia eta mutikia **basora** [bialdu zuen] abarrak eske, esanaz: <<Lehenbiziko etortzen denari **opil puska handiena** [emango diot] >>. Lehenbiziko **mutikia** [etorri zen] eta etxera ailegatu zenean esan omen zion:

Horrela, nekagarritxoago irakurten da jatorrizkoa baino. Bada hor beste perpaus bat, denporazkoa (*etxera ailegatu zenean*), eta bertan aditz aurrean dago galdegaia (*etxera*).

Aztertu daigun hurrengo sekuentzia:

- <<Abuela, [zabal] **atea!**>>. Abuelak erantzun zion: <<[Pasa ezak], ba, **eskubiko eskua!**>>.

eta [moztu zion] aizkorarekin **eskumuturra**. Eta berriz esan zion mutikiak: <<Abuela [zabal] **atea!**>>. Berriz esan zion abuelak: <<[Pasa ezak], ba, **ezkerreko eskua**>>, eta atzera [moztu zion] **beste eskua**. Gero, baita hankak ere; eta azkenean, **mutikiaren gorputza** [puskatu zUen] eta **pertz batean** [paratu zuen] egosten.

Zortzi galdegai dagoz hor. Lehenengo seiak aditz atzean dauke kokalekua; azkenengo biak, ostera, aditz aurrean, leku kanonikoan.

Aztertu daigun beste sekuentzia bat:

- [Etorri zen] nesakia **abarr(ar)ekin** eta galdetu zion abuelari: <<Non da nire anaia?>>. Abuelak esan zion: <<**Sorora** [joan da] bazkariarekin>>. Baina nesakiak [ikusitu zuen] pertzean **zerbait bazegoela**, eta [esan zion] abuelari **hark hil duela bere anaia** eta pertzean daukala egosten. Eta abuelak esan zion orduan: <<Bai, **pertzean** [dago]. Baina esaten badiozu zuen aitari, **zeu** [egosi behar dizut (zaitut)] pertzean.

Hor, perpaus nagusietan, galdegai dagoz izen sintagmak eta perpaus menpekoak (konpletiboak). Izen sintagmetan, aditz atzean dago galdegai bat (**abarr(ar)ekin**), eta aditz aurrean, beste hiru (**Sorora**, **pertzean** eta **zeu**). Perpausetan, konpletibo biak aditz ostean dagoz:

- [ikusitu zuen] pertzean **zerbait bazegoela**
- [esan zion] abuelari hark hil duela bere anaia

Eta holan, perpaus konpletiboak errezago irakurten dira, aditz aurrean parauta baino:

- pertzean **zerbait bazegoela** [ikusitu zuen]
- abuelari bere anaia hark hil duela [esan zion]

Perpaus konpletiboetariko bat ez da amaituten semaforoz, menderagailuz (-*ela*). Atzean osagai bat dau (**bere anaia**). Gure azken sekuentzia-aztergai bada beste perpaus konpletibo bat, (pertzean daukala *egosten*), eta bertan azkenengo kokalekua ez dau hartuten semaforoak, menderagailuak, ezpabere osagai batek (*egosten*). Bada beste menpeko perpaus bat, baldintzazkoa (esaten badiozu *zuen aitari*), non aditz atzean doan galdegaia (*zuen aitari*).

Jorratu daigun ondorengo sekuentzia:

- **Eguerdi aldean** [etorri zen] gizona sorotik bazkaritara eta [galdetu zion] abuelari **ea non zegoen/zen bere semea**. Abuelak esan zion: <<**Basora** [joan da] abarretara>>, eta nesakiak, bildurrak, ez zuen hitzik atera. Bazkaltzean abuelak [atera zion] gizonari **bere semearen haragi egosia**, jateko; eta jaten zegoen bitartean, berak botatzen zituen hezurak **nesakiak** [bildu] eta **teilatura** [igo zituen] eta [paratu zituen] **mutikiaren forman**.

Hor hiru puntu begitanduten jakuz jakingarriak:

Bat. Lehenengo perpausean errespetetan da galdegaiaren legea, baina ezin errezago irakurten da perpaus osoa, aditz ostean dagoalako kokauta galdegaiaz beste osagaiak. Aurrean balegoz osagaiok, eta halan erabilten da gaur nagusiro, nekagarritxoago irakurriko litzateke perpausa:

- Gizona sorotik bazkaritara **eguerdi aldean** [etorri zen]

Bi. Zehar-galdera perpausa aditz nagusiaren atzean dago. Ganera, zehar-galderaren menderagailua (-en) ez dago kokauta azkenengo lekuan. Gaur eguneko ortodoxian perpaus osoa emongo litzateke honan (nekagarriago irakurteko):

- Eta abuelari **bere semea ea non zegoen/zen** [galdetu zion].

Hiru. Ondorengo perpausean, galdegaia ez dago aditz aurrean, baina ezta aditzaren ostean be lehenengo lekuan, ezpabere bigarrenean:

- Bazkaltzean abuelak [atera zion] gizonari **bere semearen haragi egosia**, jateko;

Emon deiogun jorraldi bat hurrengo sekuentziari:

- Eta azkenekoa paratu zuenean, mutikia [hasi zen] **kantatzen**:<<Amonak [hil nau], **aitak** [jan nau], neure arrebak **hezur hutsetan** [piztu nau]!>>. Gizonak aditu zituenean kantaitak [galdegin zion] abuelari **ea zer pasatzen den teilatuan**. Eta harek erantzun zion: zer pasatu behar du! Txoriak **kantatzen** [daudela]!

Hor edozeren ganetik gauza bi nabarmenduko gendukez: batetik, lehenengo perpausean

- Eta azkenekoa parau zuenean, mutikia [hasi zen] **kantatzen**

galdegaia, aditz nominalizatua (**kantatzen**) da, eta aditz ostean dago. Bestetik, bigarrenez agertuten jaku zehar-galdera perpaus bat aditz ostean, eta menderagailua (-en) ez daukala azkenengo lekuan:

- [galdegin zion] abuelari ea zer pasatzen den teilatuan

Zertan esanik ez, perpaus hori gaurko legean parauz gero, nekagarriago irakurriko litzateke.

Emon deiogun aztertu bat azkenengo sekuentziari:

- Baina gizona ez zen konforme eta [igo zen] **teilatura** eta **han** [ikusitako] bere semea, **berarekin** [hartu] eta [eraman zuen] **sukaldera**. Eta gero mutikiak bere arreba **urrez** [jantzi zuen] berari bizia salbatzeagatik. Eta egun batean ere abuela gaizto hura [hil zen] eta aita bi umekin **ondo** [bizi izan z(ir)en].

Galdegaiak aditz aurrean dagoz batzuetan; beste batzuetan, atzean. Baina zelako errez irakurteen direan perpausok! Ohartxo bi: azkenaurreko perpausean aditza

bera (*hil*) parau dogu galdegai, halan usterik (esango baneu legez: ... hil *egin zen*), eta azkenengo perpausean inoiz ez neuke *aita bi umekin* sekuentzia parauko aditz ostean ipuin amaieran.

Amaituteko, emon deiogun begirada bat menderagailu batzuei, menpeko perpausetan azkenengo kokalekuan ez dagozenei:

- Baina nesakiak ikusi zuen pertzean zerbait bazegoela, eta esan zion abuelari hark hil duela bere anaia
- Baina esaten **badiozu** zuen aitari, **zeu** [egosi behar dizut (zaitut)] pertzean.
- Eguerdi aldean etorri zen gizona sorotik bazkaritara eta galdetu zion abuelari ea non ze(go)en bere semea.
- Gizonak aditu zituenean kantaitak galdegin zion abuelari ea zer pasatzen den teilatuan.

Ikusten dogunez, badira zehar-galdera bi (-en), konpletibo bat (-ela), denporazko bat (-enean) eta baldintzazko bat (ba-). Gaur eguneko euskeran miraria da perpausak holan topatea, hau da, ez daukela menderagailurik atzen lekuan.

1.4.

Laugarren batzailea erabiliko dogu Josemiel Barandiaran, eta beronen testu bakarra aztertuko dogu, *Euskal Dialektologiarako testo eta ariketak* liburutik jasoa. Hasi gaitezcan:

1.4.1. Erraina eta amaginarreba

Erraina eta amaginarreba ez ziren konponketan (konpontzen), eta semea **bidaiari** [joan zen]; eta **kriadua** [zeukan] amaginarrebak eta [esan zion] **mendi batera erraina eroateko**.

Errainak **ume bi** [egin zituen]; eta **txakurtxo bat** [zeukan], euren eta txakurrek [jarraitu zioten] **mendirira**.

Amaginarrebak [esan zion] kriaduari **ze eroateko errainaren esku biak eta bihotza**.

Kriaduak [kendu zizkion] **esku biak** errainari, eta **lepora** [lotu zizkion] ume biak, eta gero txakurrari **bihotza** [kendu zion].

Gure umeak **ura** [eskatu zion] amari: ama **ura** [gura dut] nik, ama.

[Bajatu zen] **errekara**, [sartu zuen] eskumako eskua **errekara** eta [atera zuen] **sano**. [Sartu zuen] **bigarrena** eta [atera zuen] **sano**.

Menditik aurrera zihoazen, [entzun zuen] zarata bat pago batean hiru kolpe emateko eskuekin.

Haiek hiru kolpeak eman eta [presentatu zen] **palazio eder bat**.

[Joan ziren] **palaziora**. [Bizi ziren] palazioan: **ama alaba biekin**.

[Joan ziren] egun batean **hiru kazadore** ia ostaturik emango zien.

Baietz [esan zien].

Gero [eman zien] **afaria**.

Beste goizean, jagi zirenean, amak [esan zion] alaba bati esan ziola kazadore bati: aditu (entzun), eutsi (tori) ura eskuak garbitzeko, eta beste alabari: aditu (entzun), eutsi trapua eskuak sikatzeko.

Gizonak [esan zien] **ea zer zioen**.

Andreak [esan zion] **ze ea ez zen akordatu zelan joan zen bidaian**. Eta [erantzun zion] ze **baietz**.

Eta [esan zion] **ze ea amak zer esan zien**.

Ba esan ziela erraina bialdu zuela mendira kriaduagaz, eta hilda bere eskuak eta bihotza agindu zuela eroateko.

Baina eroan zi(zki)ela bere eskuak eta txakurraren bihotza, erantzun zion andreak.

Palazioan [gelditu ziren] **gizona eta emaztea alaba biekin**. Euskal dialektologiarako testo eta ariketak (122-123or.) Araba: Etxaguen Zigoitia

Ez doguz galdegai guztien kokalekuak aztertuko, baina bai emon ehunekotan zenbatetan ez dan beteten galdegaiaren legea: 75%an.

Testuan badira beste gauza interesgarri batzuk be perpaus konpletibo eta zehar-galderetan. Hartu daiguzan perpaus konpletiboak. Eurok moeta bitakoak dagoz:

- Aditz jokatu gabeak (Nominalizazioak)
- Aditz jokatuak

Hona hemen zeintzuk adibide dagozan lehenengo multzokoak:

- eta [esan zion] mendi batera erraina eroateko.
- Amaginarrebak [esan zion] kriaduari ze eroateko errainaren esku biak eta bihotza.
- (Ba esan ziela erraina bialdu zuela mendira kriaduagaz,) eta hilda **bere eskuak eta bihotza** [agindu zuela] **eroateko**.

Adibideotan perpaus konpletiboak (-TZEKO) aditu ostean dagoz: lehenengoan konpletiboa amaituten da menderagailu bidez; bigarrenean, oster, semaforoa ez dago azkenengo lekuan. Azken perpausa hurrengo moduetariko baten erabiliko litzateke gaur egun euskera batuan:

- Amaginarrebak kriaduari errainaren esku biak eta bihotza eroaTEKO [esan zion]
- Amaginarrebak kriaduari [esan zion] errainaren esku biak eta bihotza eroaTEKO

Aldaera biotan ez dogu parau *ze* partikula, zeina dagoan jatorrizko perpausan. Aldaerotan, lehenengo gogor-gogorra egiten da irakurteko, baina halan erabilten da idatziz. Bigarren aldaerako estiloa zabalduz-zabalduz doa, eta errez irakurten da, baina errezen jatorrizko perpausa.

Hirugarren adibideari kenduten badeutsagu parentesi barrukoa (*Ba esan ziela erraina bialdu zuela mendira kriaduagaz,*), bitxia da, *eta hilda bere eskuak eta bihotza* [agindu zuela] **eroateko**; izan be, konpletiboaren informazioa bananduta dago: parte bat aditz aurrean eta bestea aditz ostean. Honan-edo beharko leuke:

- eta hilda [agindu zuela] bere eskuak eta bihotza eroateko.

Goazen perpaus konpletiboetan bigarren multzora, aditz jokatudunetara. Adibide bi dagoz:

- Beste goizean, jagi zirenean, amak [esan zion] alaba bati **esan ziola kazadore bati: ...**
- Ba [esan ziela] erraina bialdu zuela mendira kriaduagaz,

Perpaus bietan konpletiboa aditu ondoan dago, eta perpaus konpletibo biok ez dira amaituten menderagailu (-*ela*) bitartez.

Zehar-galdera perpausetan badira kontu jakingarri batzuk be. Hona hemen zeintzuk zehar-galdera dagozan testuan:

- [Joan ziren] egun batean hiru kazadore ia ostaturik emango zien.
- Gizonak [esan zien] **ea zer zioen**.
- Andreak [esan zion] ze ea ez zen akordatu zelan joan zen bidaian.
- Eta [esan zion] ze ea amak zer esan zien.

Adibideotan, lautatik lautuan doa zehar-galderea aditu ondoren. Hirugarren perpausak badauka zer kontatua: zehar-galdera bi dagoz, eta bigarrena ez da amaituten menderagailuz (-*en*).

Amaituteko, bada beste kontu interesgarri bat galdegaia non kokau, aditzaren ezkerretara edo eskumatara. Hona hemen adibide bi, berba bera daukenak galdegai, baina batean aditu aurrean dago eta bestean atzean:

- **Baietz** [esan zien].
- Eta [erantzun zion] ze **baietz**.

Eguneroko bizitzan, askorenean behintzat, arruntak be arruntak dira ondoko bikoteak:

- **Ezetz** [esan dizut]
- [Esan dizut] **ezetz**

1.5.

Batzaileetan bostgarrena Nils Holmer dogu, zeinak ahozko testuak jasoak dituan liburutxo baten, *El idioma vasco hablado* izenekoa. Hona hemen lehenengo testu aztergaia:

1.5.1. Emakume irulea

Emakumeak [aritzen ziren] **iruten**. Eta egunero lamia [etortzen zitzaion] **tximiniatik beheti** eta beti galdetzen zion: [Ekarran] **gantx**, ekarran gantx! Eta [koleratu ziren] **haiek** eta egun batean [gelditu zen] **sukaldean** iruten gizona, besteak emakumeak goatzera (ohera) bidalita. Gizona [gelditu zen] sukaldean **bakarra** eta [paratu zuen] pañueloa **buruan** eta arropa ere bai emakumeak bezala eta [jarri zen] **prestatuta** zartagin bat urin irakiten. Eta lamia [etorri zen] **tximiniatik beheti** eta galdetu zion gizonari: -Nor haiz hi? Eta gizonak kontestatu zion: -Neronek nere buru. Eta hark gizona zela ezagutu zuenean, [hasi zen] **tximinia goiti** eta orduan gizonak [tiratu zion] **zartagin urina** eta lamia [joan zen] **garrasika** tximinia goiti. Gero lagunak galdetu zioten: -Zer egin duk? -Neronek nere buru, neronek nere buru! Eta gehiago ez zen agertu. Lamia, Sorgin eta Tartaroen Erresuma ezkutua, J. Kalzakorta (63or.)

Errauta ez bagagoz zazpi galdegai dagoz aztergai, eta zazpiotan aditz atzean dago galdegaia. Eurotan bi ez dagoz aditzaren hurrengo lekuan, ezpabere bigarrenean:

- Gizona [gelditu zen] sukaldean **bakarra**
- eta [paratu zuen] pañueloa **buruan**

Jakiteko non darabilen galdegaia menpeko perpausetan, hona hemen zeintzuk hiru perpaus ageri direan testuan:

- besteak emakumeak *goatzera(ohera)* bidalita
- *zartagina bat urin* irakiten
- Eta hark *gizona zela* ezagutu zuenean

Hiruretan aditz aurrean dago galdegaia. Hirugarren adibidean, aditz nagusiaren aurrean dago perpaus konpletiboa. Ahozko testuetan aditz atzean ageri ohi danez perpaus konpletiboa, ikusi daigun zergaitik dagoan aditz aurrean hirugarren adibide horretan. Erreparatetan badeutsagu testuaren hariari, zelan egiten dauan aurrera diskurtsoak, konturauko gara *gizona zela* sekuentzia aurreko informazioaren segida dala, lotura perfektoa egiten dauala aurrekoarekin:

- Eta lamia [etorri zen] **tximiniatik beheti** eta galdetu zion gizonari: -Nor haiz hi? -Eta gizonak kontestatu zion: -Neronek nere buru. Eta hark *gizona zela* ezagutu zuenean,...

Ez dago salto informatiborik aurreko testuingurutik perpaus konpletibora (*gizona zela*), ez dago lotura

txarrik. Hori dala-eta, perpaus konpletiboa ondo be ondo dago dagoan lekuan, aditz aurrean.

1.5.2. Cuentos de Justiz

Espainiako erregea [etorri zen] egun batean **Jaizkibelko mendira** ehizara. Eta ehizan zebilela [egin zen] brumarekin **galdu**. Eta gero bueltaka zebilela, [gertatu zen] **etxe hori bilatzea**. Eta gero **etxe hortan** [gelditu zen]. Lo egiten **etxe horretan** [zegoen]. [Bizi zen] **neska gazte eder bat**. Eta [galdetu zuen] **nola esaten zen euskaraz <<muy hermosa>>** eta [esan zioten]: **Gutziz ederra**. Eta gero egun batzuek pasatuta gero erregeak [esan zion] **erregalo bat egingo ziola eta galdetzeko nahi zuen dina lur**. Eta **hura** [eman zion]. Euskal dialektologiarako testo eta ariketak, J. M. Etxebarria (205or.) Gipuzkoa: Ondarrabia

Zortzi galdegai dagoz aztergai, eta eurotan sei, aditz atzean. Ikusi daiguzan galdegai batzuk. Lehenengo perpausan, galdegaia dago aditzaren ondoren, bigarren kokalekuan:

- Espainiako erregea [etorri zen] egun batean **Jaizkibelko mendira** ehizara

Bigarren perpausan aditza bera da galdegai (**galdu**), eta ez dago ohiko hurrenkeran emonda, honan:

- Eta ehizan zebilela brumarekin [galdu egin zen]

Hiru perpaus menpeko ageri dira galdegai, eta hirurak aditz ostean:

- [gertatu zen] **etxe hori bilatzea**.
- Eta [galdetu zuen] nola **esaten zen euskaraz <<muy hermosa>>**
- erregeak [esan zion] **erregalo bat egingo ziola eta galdetzeko nahi zuen dina lur**

Hirugarren adibidean, bigarren perpaus juntaua aditza eta semaforo bidez hasten da (... eta galdeTZEKO...). Hiru adibideetan ipiniz gero galdegaia euren leku kanonikoetan, hona hemen emoitzak (azkenengoa lukainka-lukainkea da):

- **etxe hori bilatzea** [gertatu zen]
- Eta **euskaraz <<muy hermosa>> nola esaten zen** [galdetu zuen]
- erregeak **erregalo bat egingo ziola eta nahi zuen dina lur galdetzeko (eskatzeko)** [esan zion]

Hirugarren hori lar nekagarria da.

1.5.3. Begizko

Hiru gizonen [hartu] **mutikoa** eta hiruRI [egin zuen(zion) **eskapo**]. Eta [jartzen zen] **bizkarrean** zutik. Gu [ginen] **mendian** orduan. Eta etxera etorri ginen denboran, mutiko hark [ikusit zuen] **katu estraino bat**, katu itsusi bat. **Hark** bakarrik [ikusten zuen] -ez zuen bertzek ikusten-. Bi urtean **egunero** [ikusten zuen] eta **hiltzera** [etorri zen].

Andre batek **gaizkina** [egin zion] eta [hura zen] **katua**. –Andre hari paliza emanda, jota (aitak jo zuen), zatituta. **Ordutik** [sendatu zen] mutikoa. Orduan [eman zuen] **hitza** gehiago ez zuela egingo. Andrea [zen] **Nafarroakoa** (euskalduna). **Eskean** [ibiltzen zen].

Euskal dialektologiarako testo eta ariketak, J.M. Etxebarria (207or.) Gipuzkoa: Oiartzun

Galdegai gehienetan aditz atzean doa. Bada perpaus bat interesgarria be interesgarria:

- Orduan [eman zuen] **hitza** gehiago ez zuela egingo.

Ez da ortodoxo-ortodoxoa, gaurko euskeratik begiraturaz gero. Izan be, gaur honan erabiliko genduke:

- Orduan **hitza** [eman zuen] gehiago ez zuela egingo.

Baina jatorrizko ordenan emonda, aditz ostean daukela izena (**hitza**) eta perpaus izenlaguna (*gehiago ez zuela egingo*), badira idazle klasikoetan be (Oraintxe bertan gomutan dot J. A. Mogel). Hitzun onen ahotik be entzun izan doguz.

1.6.

Seigarren batzailea Juan Manuel Etxebarria dogu, eta honek hainbat liburutan ditu sakabanatuta testuak.

Hona hemen zein testu jorratuko dogun:

1.6.1. Jentilak eta kanpai hotsa

Supilaur-en, Gorbeian, Anboto Señoraren kobaren aurrean [egon ziren] **andre-gizon bi**, ardiak jagoten.

[Etorri zitzaien] **jentil bat** gizonagana, eta [esan zion] **beragaz, jentilagaz, joateko**. Eta **koba barrura** [eroan zuen]. Koba horretan azkeneraino ez da inor sartu. Kandela ixituagaz sartuz gero, kandela amatetan denean, arnasaren faltan irten behar delako. Eta **erreka bat eta ikaragarritzko mahaiak-eta** [ei daude] han barruan. Eta koba barruan jentilek esan zioten: <<Hire aitak honelako ikatzik egiten dik?>>. Eta gero esan zioten: <<Hartu ezak!>>. Eta hartu orduan [konturatu zen] pastorea, **hamaseiko eta ehun errealeko gorriak zirela**.

Eta esan zioten jentilek: <<[Hartu ezak] **gura dokan beste**, baina arin, ugazabak ixartu egin behar

duk-eta...>>. [Hasi zen] orduan pastorea **kolkoa eta boltsak betetan ahalik eta arinen**, eta horretan dagoela [ixartu egin zen] ugazaba. Eta orduan **galapan** [hasi zen] eta deabrua bere atzean. Eta haitzik haitz, bide arloak egin eta gero, Orozkorantz, bidean **Olarteko kanpai-hotsa** [entzun zuten]. Eta orduan jentila [geratu egin zen].

Pastorea [salbatu egin zen], ze jentilek ezin zuten pasatu aurrera kanpai-hotsa entzun zen lekura. Eta pastorea salbatuta ikusi zuenean, jentilek **maldizioa** [bota zioten].

Eta **horrela** [jazo zen], gero pastore haren eta bere ostekoan artean egundo ez da faltatu ezbeharrik. Idazketa ariketak, Labayru (111-112or.) Bizkaia: Zeberio

Testu horretan, hamabost adibide dagoz aztergai perpaus nagusietan, eta hiru kendu behar dira:

- eta horretan dagoela [ixartu egin zen] ugazaba
- Eta orduan jentila [geratu egin zen].
- Pastorea [salbatu egin zen]

horretan aditza bera da-eta galdegai. Geratuten jakuz hamabi, euroatik seitan aditz ostean dagoala galdegai, eta beste seitan, aurrean. Galdegai aditz aurrean dagozanetan, laurretan menpeko perpausak dagoz galdegai, eta laurretan, aditz ostean:

- eta [esan zion] beragaz, jentilagaz, joateko
- <<[Hartu ezak] **gura dokan beste**,
- Eta hartu orduan [konturatu zen] pastorea, **amaseiko eta ehun errealeko gorriak zirela**.
- [Hasi zen] orduan pastorea kolkoa eta boltsak betetan *ahalik eta arinen*,

Hirugarren perpaus horretan, beste bietan ez legez, menpeko perpausetan aditz ostean dago galdegai (*ahalik eta arinen*). Hona hemen zelan geratuko litzatekezan lau perpausok, betez gero galdegaiaren legea:

- eta **beragaz, jentilagaz, joateko** [esan zion]
- << **Gura dokan beste** [hartu ezak],
- Eta hartu orduan pastorea, **amaseiko eta ehun errealeko gorriak zirela** [konturatu zen].
- Orduan pastorea **kolkoa eta boltsak ahalik eta arinen betetan** [hasi zen],

Badago aldetxo jatorrizko perpausen eta azkenengo horreen artean komunikagarritasun aldetik. Ikusi daigun jarraian zelan erabilten dan galdegai menpeko perpausetan, eurok galdegaiak ez direanetan:

- *Kandela ixituagaz* sartuz gero, *kandela* amatetan denean, *arnasaren faltan* irten behar delako
- Eta haitzik haitz, *bide arloak* egin eta gero,
- Eta pastorea *salbatuta* ikusi zuenean,

Agerian dagoanez, hiru menpeko perpausotan aditz aurrean doa galdegaia (kursiban emonak adibideetan). Amaituteko, zer komentau jakingarri bat dago. Erreparau daigun zelan hasten dan perpausa:

- [Supilaur-en], [Gorbeian], Anboto Señoraren kobaren aurrean...

Gaur egun ez litzateke holan erabiliko euskera batuan, ezpabere honan:

- [Gorbeiko Supilaur-en], Anboto Señoraren kobaren aurrean...

Eta ipuinean ez da eskatuten “nongo Supilaur-en”, ezpabere “non”.

2. Konklusino-gomendioak

Heldu da ordua balantzea egiteko zelako ezaugarriak agertuten dabezen jorratu doguzan ahozko testuak hegoaldeko hiztunetan:

2.1.

Azterturiko hiztunak aurrera darabile aditza, batzuetan ezin aurrerago, aurrerengo lekuan, lehenengo kokalekuan

- [Erran zion] bere lagunari nahi zuela rekuerto bat utzi bere sorterrari, bi kolejio eginda
- [Etorri zitzaion] jentil bat gizonagana, eta [esan zion] beragaz, jentilagaz, joateko
- [Erran zioten] ea nahi zuen pote bat urrezkoa
- [Egon zen] etxe batean asto bat, asto zaharra, ezertarako ere balio ez duen astoa

Horrela erabilia aditza, ezin errezago irakurten dira testuak. Badirudi non kokatuten dan galdegaia, horrek ez daukala lehentasunik; garrantzi-garrantzia daukala aditza aurreren erabilteak, eta gero, zirkunstantziaren arabera, galdegaia, zeina, laburra bada, aditz aurrean edo ostean doan.

2.2.

Esan leiteke trankil esan be, azterturiko hiztunak gehienbatean hausten dabela galdegaiaren legea, zeinak, dakigunez, dinoan galdegaia aditzaren ezkerretara erabili behar dala aditzari berari inkautu. Legea hautsi, %80an egiten da perpaus nagusietan. Hona hemen adibide batzuk:

- Baina nola baitzituen *urte aunitz*, hil zen don Martin *Suitzan*
- Alfonsok hartu zuen automobila *bost'erditan*. Etorri zen *bere etxera*
- Gizon bat heldu zen *etxerat* eta atera zitzaizkion bidean *sorginak*,

2.3.

Menpeko perpausetan osterantzeko emoitzak dagoz, alderatuz gero perpaus nagusietakoakaz. Izan be, galdegaiaren legea ez da hausten %50ean be. Zuribidetzat esan leiteke menpeko perpausetan galdegaiak ez direala perpaus nagusietan besteko txikiak edo konplexuak. Hona hemen adibide batzuk, zeinetan aditz ostean dagozan galdegaiak:

- Erran zioten ea nahi zueN *pote bat urrezkoa*
- Eta lagunak esan zion ematen zi(zki)oLA *hiru kontseju*

2.4.

Menperagailuen kokalekuei jagokenez, beste lege bat dabil zabal be zabal euskera batuan: menpeko perpausak amaitu behar dira azkenengo lekuan daukela menderagailua. Lege hori behin eta barriz birrinduten dabe gure hiztunak. Eta horren erakusgarri, hona hemen adibide batzuk:

- eta preguntatu egin zion zer deritzoN beraren bizimoduari
- Amaginarrebak esan zion kriaduari ze eroaTEKO errainaren esku biak eta bihotza.

2.5.

Gaur egun, oro har, zelan berba egiten eben (eta daben) hiztunik onenak, euren hurrenkeren kontra idazten da. Erdera buruan idazten da. Gomendiotzat esan gura genduke, besteak beste, perpaus bat errezago irakurten bada galdegaia dagoala aditz ostean, batez be, galdegaia luzea edo konplexua bada, zergaitik ez dogu holan jokatuten? Ganera, bide batez bi mandatu egingo gendukez: tradizinoari eutsi eta irakurlearen mesedegarri jokatu. Halan biz.

3. Bibliografia

- Alzola, N. (1994). *Euskaraz, Irunen Barrena, Luma* liburuak
- Etxebarria, J. M. (1983). “*Euskal dialektologiarako testo eta ariketak*”. Gasteiz: El Carmen.
- Kalzakorta, J. (1997). “*Lamia, Sorgin eta Tartaroen Erresuma ezkutua*”. Bilbo: Labayru.
- Gallastegi, I. eta Arejita, A. (1989). Joskera: “*Esaldi Bakuna. Ikasgaiak eta Ariketak*”. Bilbo: Labayru.
- Gorostiza J. G. eta Arejita A. (1981). *Idazkera ariketak*. Bilbo: Labayru.